

IV. TITULUA. EZAGUTZAK EGIAZTATZEAGATIKO TASAK ETA GORABEHERA PERTSONALEN INGURUKO TASAK

I. KAPITULUA. TITULU ETA EGIAZTAGIRI AKADEMIKO ETA PROFESIONALAK EMATEAGATIKO TASA ²²

66. artikulua. Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak titulu eta egiaztagiri akademiko eta profesionalen espedienteak eta inprimakiak egitea eta titulu eta egiaztagiriak eta haien kopiak ematea.

67. artikulua. Subjektu pasiboa.

Aipatutako titulu eta egiaztagiri akademiko eta profesionalak eta haien kopiak eskatzen dituztenak dira tasa honen subjektu pasiboak.

68. artikulua. Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

Tituluak eta egiaztagiriak ematean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra. Hala ere, agiria emateko eskabidea egiten den unean eskatu ahal izango da tasaren ordainketa.

Tituluak eta egiaztagiriak Administrazioak bere kabuz ematen baditu, haiek eskatzen diren unean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra, eta une horretantxe eskatuko da tasaren ordainketa.

69. artikulua. Kuota. ²³

Tarifa honen arabera eskatuko da tasa (eurotan):

	Jatorrizkoak	Kopiak
1. Goi-mailako tituluak: Arte Plastikoak eta Diseinua; Arte Dramatikoa; Dantza; Musika. Titulu profesionala (1942ko plana). Araubide Bereziko Irakaskuntzen goi-mailako titulua edo lizentziaturaren baliokideak.	104,66	6,82
2. Araubide Bereziko Irakaskuntzen titulua edo diplomaturaren baliokideak.	52,33	6,82
3. Honako titulu hauek: LOE Batxilergoa, LOGSE Batxilergoa, LHko Goi Mailako Teknikaria, Goi Mailako Kirol Teknikaria, Musikako Profesionala, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi Mailako Teknikaria, Dantzako Profesionala,	45,50	6,82

²² Abenduaren 22ko EAEko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legea aldatzekoa den 5/2011 Legearen 15. artikulua aldatuta (abenduaren 28ko EHAA, 245. zk.), ondoriekin 2011ko abenduaren 29tik aurrera.

²³ Abenduaren 23ko Euskal Autonomia Erkidegoko 2015. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen 5/2014 Legearen laugarren azken xedapenak aldatuta (abenduaren 30eko EHAA, 248. zk.), ondoriekin 2015ko urtarrilaren 1etik aurrera.

EAE 2017. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen apirilaren 11ko 2/2017 Legearen azken xedapenetatik lehenengoak aldatuta (apirilaren 19ko EHAA, 74 zk.), ondoriekin 2017ko apirilaren 20tik aurrera.